

ERAKUNDEAREN DATUAK

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezzen.

- **Erakundearen izena:**Gipuzkoako Futbol Federazioa
- **Sektorea:**Kirola
- **Langile kopurua:**11
- **Webgunea:** <https://www.gipuzkoafutbola.eus/pnfg/>
- **Erakundearen jardueraren deskribapena (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):** GFF 1918an sortu zen herrialdeko 4 futbol talderen ekimenez. Gaur egun milaka federatu eta herritar biltzen ditu bere inguruan, eta esan dezakegu gipuzkoar gehienengana heltzen dela, era batera edo bestera.
- Gipuzkoako Futbol Federazioa irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatua da, berezko nortasun juridikoa du eta jarduteko gaitasun osoa. Kirolariak, teknikariak, epaileak, klubak, kirol-elkarteak eta beste talde batzuk biltzen ditu, futbola edozein modalitate edo espezialitatetan egin, sustatu eta antolatzeko. Bere eskurantz ez gain, eskuordeturik, administrazio arloko eginkizun publikoak ere betetzen ditu, eta kasu horretan Administrazio Publikoaren laguntzaile gisa aritzen da.
- F.G.F.-G.F.F. futbolaren eta areto-futbolaren kirol-modalitateko jarduera eta lehiaketa ofizialak bultzatu, kalifikatu, baimendu, antolatu eta antolatzen ditu, bere lurralde-eremuan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan. Horrez gain, kanpoan egin ditzakeen jarduerak ere sustatzen ditu.

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

- **Solaskidearen izen-abizenak:** Iñigo Letamendi Artetxe
- **Helbide elektronikoa:** iletamendi@gipuzkoafutbola.eus
- **Telefonoa:**943-463022

PRAKTIKA ONAREN AZALPENA

Praktika onaren titulua: Eredugarritasuna lantzen lanpostu estrategikoekin

Praktika onaren azalpena:

Zer da? Zertan datza?Zuzendariei eta tarteko arduradunei zuzendutako saioak izan dira. Helburua da lidergo mota desberdinak aztertuta (kolaboratzailea, eraldatzailea, autoritarioa, abegikorra...) nor bere lidergo estiloaren inguruan hausnartzea eta lidergo mota egokietarako bidean urratsak egiten trebatzea (norbere burua ondo ezagutzeko teknikak, norbere ardurapeko langileek beharrak eta nahiak jasotzeko teknikak eta abar). Saioetan erabilitako adibideetan eta ariketetan, euren laneko ohiko egoerez gain, euskara planaren kudeaketarekin lotutako egoerak

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

ere erabili dira. Batez ere haien lanpostuetatik eredugarri izateko hausnarketak eta ereduak jarri dira praktikan, euskararen erabilerako lidergo eta eredu izan daitezen, bai Federazioak kanpoan dituen harreman eta erakustaldi zen jardunaldietan, bai eta langileen erabilgarritasunaren eredu izateko ere.

Nondik dator? Arduradun zein zuzendarien egitekoen inguruan eta eredugarritasunerako baliabideen beharretatik abiatu zen proiektua.

Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak? Saio hauen onurak, parte hartu duten zuzendari eta arduradunen praktikan eta eredugarritasunean oinarritzen da. Federazioko langileen aurrean eta langileekin euskaraz aritzean eredu eta elkarrizketa gehiago egiten dira euskaraz.

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA